


INFO,

Heziketa Berezia

2024ko abenduak 16



<https://irakaskuntza.lab.eus/>

Araba: 648735679

heziketabereziaraba@lab.eus

Bizkaia: 666778152 / 666771867

heziketaberezia@lab.eus

heziketabereziabizkaia@lab.eus

GIpuzkoa: 666775703 / 673462639

heziketabereziagipuzkoa@lab.eus

heziketabereziagipuzkoa1@lab.eus

Merezimendu lehiaketaren bukaera kaotikoa

LABek ordezkoen zerrendak zuzentzeko, desgaitasun txandako lanpostuak nola esleitu diren argitzeko eta prozesuari uko egiteko prozedura zehazteko eskatu du

Abenduaren 12an LEP merezimendu lehiaketaren bidez lanpostua lortu dutenen behin-behineko zerrenda argitaratu zuen Hezkuntza Sailak. LABetik prozesu hau informazio eskasarekin gauzatzen ari dela salatu dugu eta erantzule bakarra hezkuntza saila izan dela argi adierazi nahi dugu.

Hasieratik LAB kritikoa izan da prozesu honekin, meritu lehiaketaren oinarriak ez genituen babestu hauek negoziatzeko borondate eskasa egon zelako. Gerora etorri zen legeak markatzen duen azken eguneraino ebazpena atzeratzearen erabakia eta irailaren 1ean, finkotasunak indarrean sartzearen erabakiarekin ere oso kritiko agertu ginen. Kontziente ginen, finkotasuna atzeratzeak langileen lan baldintzetan eragin negatiboa duela.

Dakizueenez, lehiaketara jardun erdiko bi lanpostu atera dira, lanpostu hauek sententzia bidezko lanpostu mugagabeak dira. Sindikatu batek epaitegietan salatu zituen eta epaileak izaera hori aitortu zien. Sententzia hau dela eta, lanpostu hauek nahitaez lehiaketara atera behar izan dira.

Oraingo egoerara etorrira, hainbat akats edo hutsune antzeman ditugu behin-behineko lanpostuen esleipenean; besteak beste, puntuazio zehaztu gabeko ordezkoen zerrenda bakarra argitaratu dute. Hori dela eta, ordezeko zerrendako hautagai bakoitzari dagokion puntuazioekin (hizkuntza eskakizuna duten lanpostuetarako eta ez dutenentarako) argitaratzea eskatu dugu.

Azkenengo mahai negoziatzailean LABek hainbat informazio publiko egitea ere eskatu zuen. Behin-behineko esleipenarekin batera "ohiko galderen" dokumentuan argitaratu ditu Hezkuntza Sailak.

Bertan, besteen artean, esleitutako lanpostuari uko egiteko aukera dagoela adierazten da. Uko egite hauek, behin-betiko zerrenda argitaratu aurretik egiten badira, behin-betiko zerrendan eragina izango dute. Hau da, esleipena berriro egingo da bakoitzaren aukeraketa kontuan hartuta. Uko egiteko, erreklamazioak egiteko bide bera erabili daiteke. Hala ere, tramitagunearen bidez uko egiteko aukera ere badago. Lanpostuari uko egiterakoan prozesu osoari uko egiten zaio.

Esleipenari dagokion erreklamazioak egiteko garaia abenduaren 19ra arte luzatuko da.



Banatu ez eraldatu!

